



ONDARROAKO UDALA

KULTURA BATZORDEAREN BILERAKO AKTA

Bilera-zenbakia: 2017/2
Eguna: 2017-06-14
Ordua: 18:00
Tokia: Udaletxea. Bigarren pisuko aretoa

Bertaratuak

Iñaki Lersundi, kultura batzordeburua eta Bertsutan Elkarteko ordezkaria
Bisit Beiro, Berdintasun arloko batzordeburua
Agurtzane Iriondo, E.A.J eta Arranondo Alkarteko ordezkaria
Gotzon Iparragirre, Apre Kultur Elkarteko ordezkaria
Iparra Guraso Elkarteko ordezkaria
Nagore Alegria, Artelan Kultur Elkarteko ordezkaria
Maitane Uribe, Dantzarte Elkarteko ordezkaria
Aitziber Arrasate, Jazz/Dantza taldeko ordezkaria
Mari Tere Kaltzakorta, Unanue Kamara Koraleko ordezkaria
Enaitz Garcia, Txosna batzordeko ordezkaria
Oier Ponce
Iban Lekunberri
Luis Etxaburu "Latxanbre"
Jose Ramon Osa Etxaburu, batzordeko idazkaria

Bertaratu ez direnak

E.A.J.ko ordezkaria
Abantin Guraso Elkarteko ordezkaria
Akordeoi Taldeko ordezkaria
Alde Zaharreko tabernarien ordezkaria
Allarte Elkarteko ordezkaria
Amnistiaren Aldeko Mugimenduko ordezkaria
Argazkilari Elkarteko ordezkaria
Asoc. Inmigrantes Senegaleses de Ondarroako ordezkaria
Asoc. Senegaleses Pueblao de Bassoul
Astilleru Itsasontzi Modelismo Elkarteko ordezkaria
Aurrera Geuria Txirrindu Elkarteko ordezkaria
Aurrera K.T. / C.D. Aurrerako ordezkaria
Dzanga Jaixetan Elkarteko ordezkaria
Casa de Galiciako ordezkaria
Eguntentia Koop. E.ko ordezkaria
Gorozikako Jai Batzordeko ordezkaria
Herriko Txistulari taldeko ordezkaria
Kamiñazpiko Jai Batzordeko ordezkaria
Kantaize orfeoiko ordezkaria
Kresala Kultur Elkarteko ordezkaria
Luterl Taldeko ordezkaria
Olee Kultur Elkarteko ordezkaria
Ondarroako Historia Zaleak Elkarteko ordezkaria
Ondarroako Metal taldeko ordezkaria
Ondarroa Arraun Elkarteko ordezkaria



ONDARROAKO UDALA

Ondarroa Atletismo Taldeko ordezkaria
Radixu Irratiko ordezkaria
Tram&Brix Antzerki Taldeko ordezkaria
Txirimorraski ODLTko ordezkaria
Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Zatozteko ordezkaria

Aztergaia

1. Unanue Kamara Koralak aurkeztutako dirulaguntza eskaera, UKKEME kontzertua egiteko 2017ko ekainaren 24an.
2. Andra Mari jaiak
3. Eskaerak eta galderak

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Unanue Kamara Koralak aurkeztutako dirulaguntza eskaera, UKKEME kontzertua egiteko 2017ko ekainaren 24an.

Unanue Kamara Koralak aurkeztutako eskaera banatu da (I. eraskina) eta koraleko ordezkariak azaldu egin du eskaera.

Kultura batzordeburuak zera esan du: Pasan urtean ez zaiola inolako dirulaguntzarik eman Unanue Kamara Koralarik Rusiako koroen olinpiadara joateko, Udalak ez zuelako dirurik. Eta gero, emaitza ikusi ondoren Udalak laguntza eman beharra ikusi zuela. Hori dela eta, ordainetan, aurten laguntza zuzen bat ematea onartu duela Udalak.

Onartu egin da eskaera.

2.- Andra Mari jaiak

Andra Mari jaietako kartel lehiaketako oinarriak onartu dira (II. eraskina).

- Ondoren, jakin da pasan urtean egin zuen Aurrekua izan zela bere azkena Ondarroako jaietan, Luis Etxaburu "Latxanbre" aurrekulariak hartu hitza eta bere ibilbidearen xehetasunak eman ditu. Txanpa Dantza Taldeko partaideei eta herri guztiari eskaerak emanez amaitu du.
- Kultura eta Berdintasun batzordeburuak bat etorri dira deialdi zabal bat egitearen aurtengo Aurreku parekidea egiteko (emakumeak eta gizonezkoak). Eta apuntatzen direnen artean aukeraketa bat egitearekin.
Azken urteetako Aurrekuetako txistularia izan den Karmelo Bilbaori ea prest dagoen aurten ere txistua jotzeko galdetzea erabaki da eta Nagore Alegria prest agertu da txistua jotzeko Karmelorekin batera edo beste norbaitekin.
- Berdintasun batzordeburuak jakinarazi du, emakumeen aurkako indarkeri kasuei aurre egiteko, formazio ikastaro bat eman nahi dutela kolektibo ezberdinentzako (tabernariak, herriko elkarteak, eta abar) eta nahi duten norbanakoentzako.
Ondoren, gaiari buruz berba egin da.
- Sokamuturra berreskuratzeko proposamena egin du ondoren Iban Lekunberrik. Kultura batzordeburuak esan du ez duela argi ikusten sokamuturra egitea. Gaia eztabaidatu egin da eta bozketa bat egin da



ONDARROAKO UDALA

ondorengo emaitzarekin; sokamuturraren alde 5 botu eta kontra 3 botu. Beraz, sokamuturra egitearen alde azaldu da kultura batzordea.

- Kultura batzordeburuak eta Oier Poncek azaldu dute elkarte bat sortu dutela Dongreneko eraikinean eta Oilotokian entseguak egiten dituzten musika talde ezberdinek eta aipatu taldeen kontzertua izango dela abuztuaren 14an.
Batzordeburuak azaldu du hitzarmen bat nahi duela egin Udalak herriko musika taldeekin, entseguetarako lokalen lagapenen truke, kontzertuak emateko herrian.
- Jaietan, Itsasurren ipintzen den ohiko karpa ipintzea onartu da.
- Iparra Guraso Elkarteko ordezkariak eskatu du 3 egunetan ipintzea umeentzako parkea eta buruhandiak gehiago ateratzea barraken alternatiba lez. Bits jaia ere aipatu egin du.
- Batzordeburuak ondorengoak esan ditu:
 - a) Mikel Santisok esan diola eurak antolatuko dutela Koadrila Eguna aurten ere. Motxaila Band elektrotzaranga kontratatzea eskatu duela koadrilen kalejirarako.
 - b) Kultur taldeak erabaki duela ondorengo kontzertua egitea abuztuaren 16an: Tremenda Jauria + Poco Brava + Juantxo Skalari (Txomin L.ri eskaini direla). Prezioa: 8.000€ + B.E.Z. (ekipo barik)
 - c) Sara Hebo, Miss Bolivia eta Huntza taldearekin ere harremanetan dabilela kultur taldea.
- Hurrengo bilera uztailaren 4an, 18:00etan, egitekotan geratu gara.

Beste barik, bilera amaitutzat eman du batzordeburuak


Jose Ramon Osa Etxaburu
Idazkaria




Iñaki Lersundi Arrizabalaga
Kultura batzordeburua



I. ERASKINA

ONDARROAKO UDALA
KULTURA BATZORDEA
48700 Ondarroa, Bizkaia

Ondarroan, 2017ko apirilaren 28an

UKKEME KONTZERTUA

Lea Artibaiko bi koru, Ondarroako Unanue Kamara Korala eta Markinako Emeki Korala, proiektu bateratu bat aurkeztera gatozkizue.

Proiektuaren helburua, 2016/17 ikasturtean, amankomunean landuko dugun erreperitorio zabala kontzertuan aurkeztea da.

Gure bi zuzendariek, Estibalitz Arrizabalaga eta Yolanda Loirak zuzenduko dituzte 35 kantari prestuak eta instrumentu jotzaile laguntzaileak (pianoa, baxu elektrikoa, bibolina, kontrabaxua, bateria, perkusioa eta kantari bakarlaria).

Aukeratutako erreperitorioan, eskualdeko musikari eta idazleen lanak plazaratuko dira; hala nola, Jabier Ituarte musikaria eta Leire Bilbao, Mikel Etxaburu, Urtza Alkorta eta Kirmen Uribe idazle ondarrutarrenak.

Bi kontzertu ditugu hitzartuta 60 minututakoak:

- **Ondarroako Andra Mari Elizan, ekainaren 24an, iluntzeko 20:15tan.**
- **Markinako Karmengo Elizan, uztailaren 13an, gaueko 22:00tan.**

Aurrekontua:

Instrumentu laguntzaileak.....	1.000 €
Kartelak, eskuprogramak,.....	300 €
Luntxa.....	400 €

GUZTIRA.....1.700 €

Haxe eskatzera gatozkizue: UKKEME proiektua aurrera eramateko, bideratu dezakezuen dirulaguntza ematea.

Zuen arreta aldez aurretik eskertuta.



ONDARROAKO UDALA

2017ko ONDARRROAKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA

BALDINTZAK

1. Edonork har dezake parte eta gaia librea da. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du.

2. Kartelaren ezaugarriak:

Teknika: edozein.

Neurria: A-3

Formatoa: euskarri gogorra edo papera.

Titulua: Kartelak ondorengoak jaso behar ditu:

- 2017ko ONDARRROAKO JAIK
- Andra Maixak (izenburua baino letra txikiagoarekin)
- Abuztuaren 11tik 17ra (izenburua baino letra txikiagoarekin)

3. Kartelak noiz eta non aurkeztu:

Epea: 2017ko uztailaren 12a arte, 14:00ak baino lehenago.

Tokia: Udal erregistro orokorra

Postaz aurkezteko helbidea: Ondarroako Udala - Jaietako kartel-lehiaketa - 48700 Ondarroa

4. Kartela zer-nola aurkeztu

Kartelek ez dute jasoko egilearen izenik, eta kartazal zarratuan sartuta aurkeztuko dira; kartazalean soil-soilik lema edo goitizena jarriko da.

Kartazal horren barruan beste kartazal bat sartuko da eta horren kanpoan lema edo goitizena jarriko da, eta barruan egilearen izen-abizenak, telefonoa, helbidea, lanbidea, adina eta nortasun agiriarekin.

5. Sariak

1. saria: 500€ (saria ordaintzean dagozkion kenkarik aplikatuko zaizkio, P.F.G.Z.)

6. Epaimahaia

Ondarroako Udalak aukeratuko du kartelik onena sarituko duen epaimahaia. Aurkeztutako lanek ez badute behar den besteko kalitaterik, epaimahaia erabaki dezake saririk ez ematea.

7. Udalak eskuratuko du saritutako kartelaren jabetza, eta eskubidea izango du argitaratzeko, zabaltzeko eta abar.

8. Saritu gabeko kartelak egileen esku izango dira abuztuaren 7a arte, 14:00ak baino lehenago.

9. Lehiaketan parte hartzen dutenek ontzat hartzen dituzte aipatu arau guztiak.